EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2019 URR. OCT. 28
SARRERA/ ENTRADA 5463 IRTEERA/ SALIDA ..................

Dokumentu mota / Tipo de documento: MERKATARITZA EBAZPEN PROPOSAMENAL / PROPUESTAS RESOLUCIÓN COMERCIO

Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA / A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Proposatzailea / Proponente: GRAJALES, UNAI (EA-NV)
CORCUERA, SUSANA(ES-SV)

Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario: EA-NV/ES-SV
Data/Fecha: 2019-10-29

Espediente zenbakia / Número de expediente: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan merkataritzak duen egoera aztertzeari eta tokiko merkataritza suspertzeko politikei buruz / Monográfico sobre el estudio de la situación del comercio en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y sobre políticas para la revitalización del comercio local (11\11\08\00\00012)

1. Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten ditu Euskadiko merkataritza tradizional txiki eta gertukoaren alde hartutako erabaki instituzional anitzak.

2. Eusko Legebiltzarrak dei egiten die gizarteari, administrazioei eta eragile anitzei, neurriak har ditzaten euskal gertuko merkataritza sustatzeko eta zaintzeko, kontuan izanik zer nolako garrantzia duen enpleguarengan, jarduera ekonomikoarengan eta herriaren gizarte egituratzearengan.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, merkataritzaren alorrean eskumena duten lurralde historikoetako gainontzeko administrazioekin, gizarte eragileekin eta inplikatutako

1. El Parlamento Vasco se reafirma en los diferentes pronunciamientos institucionales realizados en la defensa del pequeño comercio tradicional y de cercanía de Euskadi.

2. El Parlamento Vasco hace un llamamiento a la sociedad, a las administraciones y a los diversos agentes para que articulen medidas para el impulso y conservación del comercio de proximidad vasco, habida cuenta de su importancia en el empleo, en la actividad económica y en la articulación social del país.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, junto con el resto de administraciones de los territorios históricos competentes en materia comercial, agentes sociales y sociedad civil implicada, centre su

gizarte zibilarekin batera, arreta zentratu dezala euskal merkataritza ereduaren planifikazio egokian, eta bere biziraupena bermatzean.

4. Eusko Legebiltzarrak adosten du, Euskadiko Tokiko Erakundeen Legeak garatutako eskumenen eremuaren errespetuaren esparruan, euskal udalei zuzendutako neurri zehatzak hartzeko premia dagoela, helburu izanik euskal gertuko merkataritzaren baldintzak hobetzea. Horretarako, aurretiaz, sektoreko profesionalen, elkarteen, sindikatuen eta eragindako beste eragileen iritzia jasoko du, eta baita udalena eurena ere.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sakondu dezala erakundearteko elkarlanean. Helburua da gertuko merkataritza singularra integratzea Euskadiren turismo sustapenerako estrategietan, kontuan izanik zer nolako potentziala duten itzulera ekonomiko deszentralizatuak sortzen dituen elementu gisa, eta bisitariari herriaren irudi propio eta iraunkorra ematen diola.

6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala elkarlanean gizarte eragileekin eta euskal gertuko merkataritzako sektorekoekin, Euskadiko merkataritza egokitzeko garapen iraunkorreko helburuetara.

atención en la planificación adecuada del modelo de comercial vasco y en asegurar su supervivencia.

4. El Parlamento Vasco acuerda la necesidad de articular, en el marco de respeto al ámbito de competencias desarrollado por la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, medidas concretas dirigidas a los ayuntamientos vascos cuya finalidad sea la mejora de las condiciones del comercio de proximidad vasco, contando previamente con la opinión de los profesionales del sector, asociaciones, sindicatos y el resto de agentes afectados, así como con los propios ayuntamientos.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que profundice en la colaboración interinstitucional con el fin de integrar al comercio de proximidad y singular, en las estrategias de promoción turística de Euskadi, habida cuenta su potencialidad como elemento que genera retornos económicos descentralizados y muestra una imagen del país al visitante singular y sostenible.

6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir trabajando conjuntamente con los agentes sociales y del sector del comercio de proximidad vasco en la adaptación del comercio en Euskadi a los objetivos de desarrollo sostenible.

7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritza animatzen du informazio kanpainak egin ditzan Euskadiko tokiko merkataritza laguntzeko eta euskal gizartea sentsibilizatzeko denda txikiek egiten duten lan garrantzitsuari buruz: ez bakarrik ekonomian eta enpleguan, baita ere Euskadiko udalerrietako hiri-bizitzaren oreka bermatzeko.

8. Eusko Legebiltzarrak babesa adierazten die Euskadiko merkataritza sektoreko langile, enpresari eta autonomoei. Merkataritza lehen mailako sektore ekonomiko eta kulturala da, lagundu egiten du aberastasuna eta enplegua sortzen, gizartea kohesionatzen, eta gure herri eta hiriak egituratzen.

9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jar dezala, 2017-2020 Plan Zuzendariak ezarritako ezagutza sortzeko eta kudeatzeko helburuaren baitan, merkatu inteligentzia sistema bat, giza baliabide eta baliabide ekonomiko egokiak jarriz, ezagutza sustatzeko, zeinak ahalbidetuko baituen banaketa-sektoreak eta administrazioek estrategiak erabakitzea.

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritza animatzen du sektoreko eragileekin lan egin eta adostu ditzan bere eskumenen eremuan beherapenak ezartzeko eta horien ordutegientzako irizpideak. Horrela,

7. El Parlamento Vasco anima al Gobierno Vasco a realizar campañas informativas para apoyar al comercio local de Euskadi y sensibilizar a la sociedad vasca sobre la importante labor que los comercios minoristas tienen: no solo en la economía y el empleo, sino como garantes del equilibrio de la vida urbana en los municipios de Euskadi.

8. El Parlamento Vasco manifiesta su apoyo a los trabajadores, empresarios y autónomos del sector comercial de Euskadi. El comercio es un sector económico y cultural de primer orden, que contribuye a la generación de riqueza y empleo, a la cohesión social y a la articulación de nuestros pueblos y ciudades.

9. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a poner en marcha, dentro del objetivo de creación y gestión del conocimiento que establece el Plan Director 2017-2020, un sistema de inteligencia de mercado, con una adecuada dotación económica y humana, para proporcionar conocimiento que permita la adopción de estrategias al sector de distribución y a las administraciones.

10. El Parlamento Vasco anima al Gobierno Vasco trabajar y consensuar, con los agentes del sector y en el ámbito de sus competencias, los criterios sobre horarios y establecimiento de

Espainiako Gobernuarekin batera, Euskadiko merkataritzarentzat onuragarrienak diren neurriak hartu ahal izateko, ahalbidetuz baita ere benetako kontziliazioa eta lan baldintza duinak merkataritza sektoreko pertsona langileentzat.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko Aurrekontu Orokorretan indartu ditzala merkataritza sektorera zuzendutako programak, neurriak eta laguntzak.

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio programak eta laguntzak egituratu ditzala, merkataritzaren lehiakortasuna eta hiriguneetan marka posizionamedua hobetzera zuzendutakoak, eta baita ere inguru lankidetzako urteko proiektuak ezartzea eta garatzea bultzatzera zuzendutakoak, merkataritza dentsitate baxuko eremuetan, euren ezaugarriengatik proposamen estrategikoak osatzen dituztenean biziberritu beharreko inguruen hornikuntza hobetzeko.

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laguntzak eta programak egituratu ditzala, merkataritza fluxuak erakartzera zuzendutako ekintzak izango dituztenak, hori kokatuz ingurumen iraunkortasun hobea ahalbidetzen duten hiriguneetan.

períodos de rebajas, de manera que junto con el Gobierno de España se puedan adoptar las medidas más beneficiosas para el comercio en Euskadi, permitiendo además una efectiva conciliación y condiciones laborales dignas a las personas trabajadoras del sector comercial.

11. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar en Presupuestos Generales de Euskadi los programas, medidas y ayudas dirigidos al sector comercial.

12. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a articular programas y ayudas destinadas a la mejora de la competitividad comercial y del posicionamiento de marca de los entornos urbanos, así como el impulso de la implantación y desarrollo de proyectos anuales de cooperación zonal, situados en áreas de baja densidad comercial, que por su carácter integren propuestas estratégicas para la mejora del abastecimiento comercial de las zonas sujetas a revitalización.

13. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a la articulación de ayudas y programas con acciones dirigidas a la captación de flujos comerciales situándolo en ámbitos urbanos que permitan una mejor sostenibilidad medioambiental.

14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio antolatu eta sustatu ditzala merkataritzaren osagarri diren zerbitzuak, inguruan bezeroak erakartzea lagunduko dutenak. Horretarako, erakundearteko akordio zabalak lor ditzala Euskadin Erosketa Turismoa sustatzeko estrategia eta politikak abian jartzearen inguruan.

15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio elkarlanean aritu dadila sektorea gizartean posizionatzeko, honako irizpide positibo hauetan oinarrituz: desberdintzea, balio erantsia sortzea, berezitasuna, bezeroari zerbitzua, benekotasuna; hori guztia, balioak eta egiteko modu propioa transmitituz, desberdintzen eta bereizten gaituena.

16. Eusko Legebiltzarrak, kontuan izanik emakumeak merkataritza sektorean eta gizarte osoan duen garrantzia, adierazten du beharrezkoa dela irizpide sozialak hartzea, laguntza-lerroetako eta Jaurlaritzaren programetako hobarien bidez lehenetsi egingo dutenak enplegu mugagabea edo emakumea lan merkatuan baldintza berdintasunean sartzea.

17. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritzo elkarte ehunari lotutako proiektuak sustatzeko ekintzak indartzea, ondorio izango dituztenak gertuko merkataritza urbanora erakartzeko ekintzak.

14. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a organizar y fomentar servicios complementarios al comercial que faciliten la captación de clientes en la zona, alcanzando acuerdos amplios interinstitucionales sobre la estrategia y la implementación de políticas en torno al impulso del Turismo de Compras en Euskadi.

15. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a colaborar en el impulso del posicionamiento del sector en la sociedad, en base a criterios positivos de diferenciación, de generación de valor añadido, de singularidad, de servicio al cliente, de autenticidad, transmitiendo valores y una forma de hacer propia que nos diferencia y singulariza.

16. El Parlamento Vasco teniendo en cuenta el importante papel de la mujer en el sector comercial y en el conjunto de la sociedad, manifiesta la necesidad de impulsar la adopción de criterios sociales que primen mediante bonificaciones en las líneas de ayudas y en los programas del Gobierno, el empleo indefinido o la incorporación de la mujer en igualdad de condiciones al mercado laboral.

17. El Parlamento Vasco considera necesario un refuerzo de las acciones de impulso a los proyectos ligados al tejido asociativo que den como resultado acciones de atracción al comercio de proximidad urbano.

18. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala merkataritza politikak lidergo publikoa eta gobernantza indartuz, lan egiteko modu gisa, sektorearekin eta bere eragile guztiekin hartu-eman etengabea eta arina mantenduz.

19. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez, indartu dezala Euskal Merkataritza Federazioen gaitasuna. Horretarako, bere estruktura-gastuetara zuzendutako diru-laguntzak finkatu ditzala hurrengo aurrekontuetan.

20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sustatu ditzala merkataritzarekin lotutako elkarte ehuna indartuko duten ekintzak, eta egin dezala Euskadiko elkarteen erradiografia, oinarri hartuta adostasun zabaleko irizpideak aurrekontu-zuzkiduretarako jarraibideak ezartzeko.

21. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laguntzak eman ditzala hitzarmen eta egiturentzat, eskubide osoko elkarte ordezkaritzaren arabera. Helburua da elkarte estamentuen garrantzia aitortzea.

22. Eusko Legebiltzarrak uste du euskal merkataritza ereduak lagundu behar duela gizarte egituratzean, ekarpena egiteko iraunkortasunari, enplegua sortzeari, aniztasunari,

18. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar las políticas comerciales desde el fortalecimiento del liderazgo público y la gobernanza, como una forma de trabajo, manteniendo una interlocución constante y fluida con el sector, con todos sus agentes.

19. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a través del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo se potencie la capacidad de las Federaciones de Comercio Vasco consolidando en los próximos presupuestos subvenciones destinadas a sus gastos de estructura.

20. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a promover acciones que fortalezcan el tejido asociativo relacionado con el comercio y a realizar la radiografía asociativa en Euskadi basándose en criterios de amplio consenso para establecer las pautas de asignaciones presupuestarias.

21. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco con el objetivo de reconocer la importancia de los diferentes estamentos asociativos a otorgar las ayudas para convenios y estructuras de forma acorde a la representatividad asociativa de pleno derecho.

22. El Parlamento Vasco considera que el modelo comercial vasco, debe contribuir a la articulación social aportando sostenibilidad, creación de empleo, diversidad, innovación,

berrikuntzari, eta Euskadiko herritarren ongizateari eta segurtasunari.

seguridad y bienestar a la ciudadanía de Euskadi.

23. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko retail sektorearen errealitate berrien azterketara zuzendutako azterketak egin ditzala.

23. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que realice estudios destinados a al análisis de las nuevas realidades del sector del retail en Euskadi.

24. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko merkataritzaren hurrengo planifikazio estrategikoan kontuan izan ditzala azpisektoreen plan estrategikoak, eta bultzatu dezala sektorearekin adostutako ekintza-transformazio lerroen planifikazioa. Helburua da politika bereiziak eskatzen dituen azpisektorearen aitortza egitea.

24. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a tener en cuenta en la próxima planificación estratégica del comercio en Euskadi, los planes estratégicos subsectoriales y a impulsar la planificación de las líneas de acción – transformación consensuados con el sector, con el fin de llevar a cabo un reconocimiento subsectorial que requiere de políticas diferenciadas

25. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aitortza publikoko jardueren bidez nabarmendu dezala merkataritza sektorearen lana, ondorengoak bezalako aspektuetan: enpresa lankidetza, berrikuntza, ibilbide profesionala, merkataritza inguruen dinamizazioa edo ekintzailetza.

25. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a destacar mediante acciones de reconocimiento público la labor del sector comercial en aspectos como la cooperación empresarial, la innovación, la trayectoria profesional, la dinamización de entornos comerciales o el emprendimiento.

26. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatu dezala udal merkatuak sustatzeko ekintzen lanketa, garrantzia baitu enplegua mantentzeko, hiri kohesioa indartzeko eta garrantzia baitu, baita ere, beste sektore ekonomiko batzuekin –adibidez, turismoarekin- sortzen dituen sinergiak.

26. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar la elaboración de acciones para el impulso de los mercados municipales dada su importancia para el mantenimiento del empleo, el refuerzo de la cohesión urbana y las sinergias que generan con otros sectores económicos como el turismo.

27. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekintzak esploratu ditzala, ahalbidetuko dutenak enpresa transmisio prozesu egokia ematea, merkataritza sektorean enpresen jarraipena laguntze aldera.

28. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritzo Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen neurri, programa eta laguntza guztiak indartzea, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Oarsoaldea eskualdeekin lotuta daudenak edo horietan eragiten dutenak. Horretarako, Euskadiko eremu ahuletarako Talka Plana izenekoarekin jarraituko du, jarduera berriak definituz ekonomia berraktibatzeko, enplegua sortzeko eta gizarte garapena hobetzeko.

29. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritzo, euskal gertuko merkataritzak bizirauteko, Eusko Jaurlaritzak beren lehiakortasuna indartzeko neurriak sustatzea, inbertsioak lagunduz lokalaren erreforma eta modernizaziorako, eta merkataritza jarduera garatzeko eta bere elementuetarako beharrezko ekipamenduak eguneratzeko.

30. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritzo merkataritza sektorea baliabidez hornitzea bere irudia eta pertzepzio soziala modernizatzeko, eraldatzeko eta indartzeko, eta profesionalki prestigioa ematea bere lehiakortasuna hobetzeko.

27. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a explorar acciones que permitan que se produzca un adecuado proceso de transmisión empresarial dirigido a facilitar la continuidad empresarial en el sector comercial.

28. El Parlamento Vasco considera necesario que el Gobierno vasco intensifique todas las medidas, programas y ayudas relacionadas en vigor y con impacto en las comarcas de Ezkerraldea, Meatzaldea y Oarsoaldea, dando continuidad al denominado I Plan de Choque para las zonas desfavorecidas de Euskadi con la definición de nuevas actuaciones para reactivar la economía, generar empleo y mejorar el desarrollo social.

29. El Parlamento Vasco considera necesaria para la supervivencia del comercio de proximidad vasco que el Gobierno Vasco impulse medidas para reforzar su competitividad con ayudas a las inversiones dirigidas a la reforma y modernización del local y la actualización de equipamientos necesarios para el desarrollo de la actividad comercial y sus elementos.

30. El Parlamento Vasco considera que es necesario proveer de medios al sector comercial para modernizar, transformar y reforzar su imagen y precepción social, prestigiarlo profesionalmente para su mejora competitiva.

31. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila buru izanik, neurriak egituratu daitezela bultzatzeko euskal merkataritza enpresa sartzea omnikanalitatearen ingurura, eta egokitzeko eskaintzen den erosketa esperientzia inguru teknologiko berrietara.

31. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que bajo el liderazgo del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo se articulen medidas que impulsen la incorporación de la empresa comercial vasca al escenario de la omnicanalidad y adaptación de la experiencia de compra que se ofrece a los nuevos entornos tecnológicos.

32. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sakondu dezala hirigintzaren merkataritza dimentsioan, proiektu pilotu posibleak identifikatuz eta definituz, dentsitate baxuko auzo edota hiriguneei lotutakoak.

32. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a profundizar en la dimensión comercial del urbanismo mediante la identificación y definición de posibles proyectos piloto asociados a barrios y/o entornos urbanos de baja densidad

33. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritzo sektore lehiakortasuneko euskal merkataritza sektoreari eta hiriguneen dinamizazioari zuzendutako politiken arteko osagarritasuna eta sinergiak sustatzen eta hobetzen jarraitzea, koordinazio espazioak sortuz politika zonalen eta gremioenen bateratzerako, eta elkarlan publiko-pribatua optimizatzeko.

33. El Parlamento Vasco considera necesario seguir impulsando y mejorando la complementariedad y sinergias entre las políticas destinadas al sector comercial vasco de competitividad sectorial y de dinamización de espacios urbanos mediante la creación de espacios de coordinación para convergencia de las políticas zonales y gremiales y la optimización de la colaboración pública privada.

34. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Merkataritza Sektorerako formakuntza integraleko programari eutsi diezaiola eta indartu egin dezala. Helburua da erreferente izango den formakuntza eskaintza bat egituratzea Euskal Herriko

34. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar y reforzar el programa de formación integral del Sector Comercio con el fin de vertebrar una oferta formativa referente para la profesionalización y mejora de la competitividad del sector minorista del País Vasco.

sektore minorista profesionalizatzeko eta haren lehiakortasuna hobetzeko.

35. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio dinamizazio- eta komunikazio-ekintzak egin ditzala, herritarrek begirunea izan diezaioten Euskadiko merkataritza tradizional eta historikoari.

36. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, bere kalitate-programan esparruan edo bere urteko sarietan, ezar dezala 30 urte baino gehiagoko belaunaldiarteko denda tradizionalentzako aitortza bat, bere garrantzia soziala kontuan izanik.

37. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zeharkako komunikazio- eta formakuntza-ekintzak egin ditzala Merkataritza eta Kontsumoa gaiaren inguruan. Helburua da herritarrak jabetzea kontsumerismoaren eta erosketa jasangarriaren ariketaren garrantziaz garapen hobe baterako eta kohesiorako.

38. Eusko Legebiltzarrak, arauak berrikusteko Euskadiko sektorearen ordezkariek adierazitako premia anitzen aurrean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio manten dezala jarrera proaktiboa bitartekaritzan eta elkarlanean, betiere eskumenen erakunde errespetuaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak jarraituz.

35. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar acciones de dinamización y de comunicación para que la ciudadanía tenga en consideración al comercio tradicional e histórico de Euskadi.

36. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco de sus programas de calidad o en sus galardones anuales establezca un reconocimiento a los comercios tradicionales intergeneracionales de más de 30 años dada su importancia social.

37. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar acciones de comunicación y formación transversales sobre la temática de Comercio y Consumo para que la sociedad conozca la importancia del consumerismo y del acto de compra sostenible en un mejor desarrollo y en la cohesión.

38. El Parlamento Vasco, ante la necesidad expuesta por los representantes del sector en Euskadi de realizar diversas revisiones normativas, insta al Gobierno Vasco a mantener, desde los principios de respeto competencial institucional y seguridad jurídica, una actitud proactiva de mediación y colaboración.

39. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio esku-hartzeen kanpo ebaluazio bat sar dezala, tresna garrantzitsu eta beharrezko gisa programak eta laguntza-lerroak optimizatzea eta dinamizatzea bermatze aldera.

39. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a incorporar la evaluación externa de las intervenciones como una herramienta relevante y necesaria para garantizar la optimización y dinamización de los programas y líneas de ayudas.

EA/NV TALDEA

ES/SV TALDEA